



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ETXE ABEREEN UDAL ORDENANTZA.

ORDENANZA MUNICIPAL SOBRE ANIMALES DOMÉSTICOS.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Etxe-abereen Udal Ordenantza.

Ordenanzas Municipales sobre animales domésticos.

I. TITULUA

TITULO I

1. artikulua.

Artículo 1.

1. Animaliaren bat duenak higiene eta osasunezko baldintza egokietan eduki beharko du, aterperako leku egokia jarriz, janaria eta edaria emanaz, albaitaritza-sorospena eta gorputz ariketak egiteko aukera eskainiz eta bere espezie eta arrazaren behar fisiologiko eta etiologikoei dagokien moduko arreta eskainiz.

1. El poseedor de un animal deberá mantenerlo en buenas condiciones higiénico sanitarias, procurándole instalaciones adecuadas para su cobijo, proporcionándole alimentación y bebida, prestándole asistencia veterinaria y dándole la oportunidad de ejercicio físico y atendándole de acuerdo con sus necesidades fisiológicas y etológicas en función de su especie y raza.

Abereak jan eta gaua pasatzen duen etxearen jabea, zakur eta abere horien jabetzat emana izango da, ondorio guztietarako.

A todos los efectos, se considera dueño de los perros y demás animales domésticos, aquél en cuya casa coma y pernocte el animal.

2. Dena den, debekatua dago:

2. En todo caso queda prohibido:

a) Animaliei tratatu txarra ematea edo arrazoirik gabeko oinaze edo mina eta larritasuna sor diezaiekeen edozer gauza egitea.

a) Maltratar a los animales o someterlos a cualquier práctica que les pueda producir sufrimiento o daños y angustia injustificados.

b) Abandonatzea.

b) Abandonarlos.

c) Bizi ahal izateko behar duten janaria ez ematea eta/edo higiene eta osasunaren ikuspuntutik egokiak ez diren tokietan edukitzea.

c) Mantenerlos sin la alimentación necesaria para subsistir y/o en instalaciones inadecuadas desde el punto de vista higiénico sanitario.

d) Animaliei mozketak egitea, albaitarien ardurapean ezinbesteko arrazoiengatik, funtzionaltasunagatik edo arrazaren ezaugarriari eusteko, egiten direnak izan ezik.

d) Practicarles mutilaciones, excepto las controladas por los veterinarios en caso de necesidad, por exigencia funcional o para mantener las características de la raza.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- | | |
|--|--|
| e) Alkohola, drogak edo farmakoak ematea, edo kalte fisikoak edo psikikoak sor diezazkieten edonolako manaiu artifizialak egitea, lehiaketaren batean emaitza hobekak lortzeko izan arren. | e) Suministrarles alcohol, drogas o fármacos o practicarles cualquier manipulación artificial que pueda producirles daños físicos o psíquicos, aun cuando sea para aumentar el rendimiento de una competición. |
| f) Animaliei ez dagozkien edo tratatu iraingarria suposatzen duten jokabide eta jarrerak indiarrez ezartzea. | f) Imponerles la realización de comportamientos o actitudes ajenas e impropias de su condición o que impliquen trato vejatorio. |
| g) Zakur eta oilar borrokak. | g) Las peleas de perros y gallos. |
| h) Kalean animaliak hiltzea, behar-beharrezko edo ezinbesteko izan ezik. | h) Sacrificar animales en la vía pública, salvo en los casos de extrema necesidad y fuerza mayor. |

3. Debekeatua dago, halaber:

- a) 14 urtez beherakoei edo ezinduei animaliak saltzea, ematea edo uztea, haien guraso-agintea edo zaintza duen pertsonaren baimenik gabe.
- b) Animalien kalez kaleko salmenta, baimenduak dauden merkatu edo azoketatik kanpo
- c) Animaliak laborategiei edo klinikei saltzea administrazioaren kontrolik gabe.
- d) Animaliak salmentak bultzatzeko sari edo ordain gisa ematea, animalien ordainbidezko eskualdaketa onorio diren negozio juridikoak salbu.

3. Queda igualmente prohibida:

- a) La venta, donación o cesión de animales a menores de catorce años o a incapacitados sin la autorización de quien tenga la patria potestad o la custodia.
- b) La venta ambulante de animales fuera de los mercados y ferias autorizados.
- c) La venta de animales a laboratorios o clínicas sin control de la Administración.
- d) Hacer donación de los mismos como reclamo publicitario, premio o recompensa, a excepción de negocios jurídicos derivados de la transacción onerosa de animales.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

II. TITULUA

TITULO II

Txakurra edukitzeko.

De la tenencia de animales de especie canina

2. artikulua. Identifikazioa, erregistroa eta dokumentazioa.

Artículo 2. Identificación, registro y documentación.

1.Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1993ko maiatzaren 25eko Aginduaren 2., Eta 3. Artikuluetan xedaturikoaren arabera, agindu horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko txakurren identifikazioa arautu baitzen, txakurrek bizi ohi diren udalerriko udaletxean erroldatu eta identifikaturik egon behar dute, eta, tokian tokiko foru aldundiaren bitartez, erregistraturik egon behar dute Euskal Autonomi Erkidegoko Abereen Identifikazio Elektronikoko Erregistro Orokorrean. Erregistro hori 1993ko maiatzaren 5eko Aginduak sortu zuen, abereak identifikatzeko metodo elektronikoen erabilera arautu baitzuen.

1.En virtud de lo dispuesto en los artículos 2 y 3 de la Orden de 25 de mayo de 1993, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se regula la identificación de los animales de especie canina en la Comunidad Autónoma del País Vasco, éstos deberán estar censados e identificadas en el Ayuntamiento del municipio donde residan habitualmente, así como encontrarse inscritos, a través de la correspondiente Diputación Foral, en el Registro General de Identificación Electrónica de Animales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, creado por la Orden de 5 de mayo de 1993 por la que se regula la utilización de métodos electrónicos de identificación animal.

2.Inskripzioa lurraldeko erregistroan egingo da, zeina Gipuzkoako Foru aldundiko Abeltzaintza zerbitzuak sortu eta kudeatuko baitu.

2.La inscripción se llevará a cabo en el Registro Territorial creado y gestionado por los Servicios de Ganadería de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

3.Animalien jabeek eguneraturik eduki beha dute, betiere, Txakurren Osasun Liburuxka.

3.Los propietarios de los animales deberán tener permanentemente actualizada la Cartilla Sanitaria Canina correspondiente.

3. artikulua. Animalia arriskugarriak.

Artículo 3. Animales de Riesgo.

1.Animalia arriskugarria: Eskudun udal agintariak animalia arriskugarritzat katalogatu duen edozein txakur. Katalogazio hori egiteko irizpide

1.Se considerará «Animal de Riesgo» a todo animal de la especie canina que con carácter individual haya sido catalogado como tal por las



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

objektiboak erabili behar dira, esaterako honako hauek: Partikularren salaketa, portaera erasokorra erakustea edo pertsona eta/edo animalientzat arriskua duela nabarmen agertzea.

autoridades municipales competentes atendiendo a criterios objetivos tales como haber sido objeto de denuncias por parte de particulares, manifestar un comportamiento agresivo, o cualquier otra circunstancia que ponga de manifiesto la peligrosidad del animal respecto a las personas y/o animales.

2.«Animalia arriskugarritzat» katalogaturiko txakurren kasuan, derrigorrezkoa da katalogazio hori Txakurren Osasun Liburuxkan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Abereen Identifikazio Elektronikoaren Erregistro Orokorrean agertzea.

2.En el caso de perros catalogados como «Animales de Riesgo» será necesario que dicha catalogación figure, tanto en la propia Cartilla Sanitaria Canina de los mismos, como en el Registro General de Identificación Electrónica de Animales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Horrez gain, kanpoko identifikazio bat emango zaie, betiere agerian eraman behar izango dutena.

Asimismo, les será expedida una identificación exterior que deberán llevar permanentemente visible.

4. *artikulua.*Animaliak edukitzeko baldintza orokorrak.

Artículo 4. Condiciones generales de tenencia de los animales.

1.Txakurrak eduki ahal izateko, jabeak baldintza batzuk bete behar ditu, besteak beste: Txakurrari janaria, edaria eta osasun laguntza eman behar dizkio, eta animalia beharrezko beharrezko egokiak diren instalazioak eduki behar ditu, urriaren 29ko 6/93 Legeko 4. artikulua xedatuaren arabera.

1.La tenencia de animales de la especie canina estará condicionada al hecho de que el propietario de aquéllos les procure alimentación, bebida y asistencia sanitaria, así como unas instalaciones adecuadas a sus necesidades, de conformidad a lo establecido en el artículo 4 de la Ley 6/93 de 29 de octubre.

2.Txakurren jabeek erantzukizun zibileko aseguru nahitaez egin behar dute, animaliek kalte-galerarik eraginez gero, haiei erantzun ahal izateko.

2.Los propietarios de animales de la especie canina, tendrán la obligación de constituir un seguro obligatorio de responsabilidad civil que cubra los daños y perjuicios que pudieran provocar dichos animales.

Hala, erantzukizun zibileko aseguruaren urteko ordainketa eginda

En tal sentido, el correspondiente recibo que garantice el pago anual del



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- dagoela adierazten duen agiria Txakurren Osasun Liburuxkari erantsi behar zaio beti. seguro de responsabilidad civil, deberá incluirse, en todo caso, en la Cartilla Sanitaria Canina.
- 3.Hiriko bide eta leku publikoetan, hala nola eraikin kolektiboetako zati komunetan ere, txakurrak kontrolpean eta uhal batez loturik eduki behar dira. Uhalak egokia izan behar du animalia-erabaztearen ezaugarrietarako, eta gehenez bi metro luze izan daiteke. 3.En las vías y espacios públicos urbanos, así como en las partes comunes de los inmuebles colectivos los animales de la especie canina deberán ir bajo control y sujetos mediante el uso de una correa, adecuada a las características del animal, y con una longitud máxima de dos metros.
- 4.Aurreko paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe, Udalak, bere eskumenen eremuan, jolas edo aisiarako eremuak prestatu ahal izango ditu txakurrentzat. 4.Sin perjuicio de lo establecido en el párrafo anterior, el Ayuntamiento, en el ámbito de sus competencias, podrá habilitar zonas de esparcimiento para animales de la especie canina
- 5.Txakurra daukana edo txakurraz baliatzen dena izango da txakurrak eragindako kalte, galera edo eragozpenen erantzulea, nahiz eta txakurrak ihes egin edo galdu, Kode Zibilaren 1.905. artikuluan xedatutakoaren arabera. 5.El poseedor de un animal, o el que se sirve de él, será responsable de los daños, perjuicios y molestias que causare, aunque se le escape o extravíe, conforme a lo fijado por el artículo 1.905 del Código Civil.
- 6.Txakurren osasun egoera ikuskatu ahal izateko, jabeek albaitaritza kontroleko azterketa kliniko egin behar diete urtean behin. Kontrol horretan alderdi hauek aztertuko dira: 6.Al objeto de poder supervisar el estado sanitario de los animales de la especie canina, los propietarios de los mismos deberán someterlos, con una periodicidad anual, a un examen clínico de control veterinario que deberán abarcar los siguientes aspectos:
- a) Txakurraren osasun egoera orokorra. a)Estado sanitario general del animal.
- b) Txakurraren identifikazioa. b)Identificación del animal.
- 7.Edozein azterketa kliniko egitean, albaitaritza teknikariak anomaliarik sumatuz gero, haren berri emango dio ofizialki udal agintaritzari, egin beharreko espedienteari hel diezaion. 7.En el caso de que, en la realización de cualquier tipo de examen clínico, el técnico veterinario detectase alguna anomalía, comunicará oficialmente las circunstancias a las respectivas autoridades municipales, al objeto de



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

que las mismas instruyan el correspondiente expediente.

8. Txakurrek beren gorozkiekin herriko espaloi, bide, parke edo gainerako berdeguneak ez zikintzeko erantzukizuna beraien jabeek dute. Beraz, txakurrei beren eginkariak etxean egiten erakutsi behar zaie.

8. Los propietarios de los perros, quedan responsabilizados de que éstos no ensucien con sus deyecciones las aceras, calzadas, jardines y demás zonas verdes de la Villa, debiendo adiestrar a los perros que con ellos convivan a practicar dichas operaciones fisiológicas en sus propios domicilios.

Dena den, txakurrak aipameneko bide publiko eta berdeguneetan egiten dituzten gorozkiak, poltsetan jaso egin behar ditu txakurraren jabeak, zaborrontzietan uzteko.

En todo caso y bajo todo concepto, el propietario del perro deberá recoger las deyecciones en bolsas y deberá depositarlas en los basureros públicos.

9. Era guztietako establezimendu publiko eta ostatueta jabeek, nahi izanez gero, debekatu ahal izango dute animaliak bertan sartzea. Horietatik salbuetsita egongo dira itsu-txakurrak.

9. Los dueños de los establecimientos públicos y alojamientos de todo tipo podrán prohibir, a su criterio, la entrada y permanencia de animales en sus establecimientos, a excepción de los perros guía.

Ikuskizunetarako leku publikoetan, kirol eta kulturakoetan, eta bidaiarien garraiorako ibilgailu publikoetan animaliak sartzea debekatuta dago. Era berean, ezin da inolako animaliarik sartu elikagaien prestakuntza, salmenta, biltoki edo garraiorako lokal eta ibilgailuetan.

Queda expresamente prohibida la entrada de animales en locales o recintos de espectáculos públicos, deportivos y culturales, y en los vehículos de transporte público de viajeros, así como la entrada en locales o vehículos destinados a la fabricación, venta, almacenamiento, transporte y manipulación de alimentos.

10. Guztiz debekatuta dago animaliei kalean jaten ematea.

10. Queda terminantemente prohibido alimentar a los animales en la vía pública.

5. artikulua. Animalia arriskugarriak edukitzeko baldintza bereziak.

Artículo 5. Condiciones particulares de tenencia de Animales de Riesgo.

Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzea erregulatzen duen legeriak (apirilaren 4ko 66/2.000

1. La tenencia de cualesquiera animales clasificados como animales de riesgo al amparo de la Ley 50/99 y



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Dekretua eta 50/99 Legea) xedatuaren arabera, animalia arriskugarritzat sailkatutako edozein animalia edukitzeko baldintza hau bete behar da: Lizentzia administratiboaren jabe izatea. Aipameneko lizentzia eskatzailea bizi den herriko udalak emango du edo, Tolosako Udalari adierazi ondoren, merkataritza edo trebatze jarduera burutzen den herriko udalak, honako baldintza hauek bete eta gero:

a) Adinez nagusia izatea eta animalia behar bezala zaintzeko gaitasuna izatea.

b) Honako arrazoi hauengatik kondenatua ez izana: Giza hilketa, lesioak, torturak, askatasun moral edo osotasunaren kontra egitea, askatasun sexual edo osasun publikoaren aurka egitea, banda armatuko kidea, narkotrafiko bandakoa edo animalia arriskugarrien edukitza dela eta zigorrak eduki izana.

c) Gaitasun psikologikoko ziurtagiria.

d) Animaliak hirugarren bati egin diezazkiokeen kalte-galerei aurre egiteko (jartzen den kopuruaz) erantzukizun zibileko aseguru formalizatu dela egiaztatuko duen agiria.

2. Herri edo organo eskudun bakoitzean, eta espeziez espezie sailkatuta, Arriskuko Animalien Erregistro bat egongo da. Erregistroan honako datu hauek nahitaez jasoko dira: Jabearen datu pertsonalak, animalia identifikatzeko ezaugarriak, animalia bizi den tokiko helbidea eta animalia gizakiarekin batera bizitzen den edo beste helbururen baterako dagoen: Zaintzeko, babesteko edo

del Decreto 66/2000, de 4 de abril, por el que se regula la tenencia de animales de especie camina en la Comunidad Autónoma del País Vasco, requerirá la previa obtención de una licencia administrativa, que será otorgada por el Ayuntamiento del municipio de residencia del solicitante, o, con previa constancia en este Ayuntamiento, por el Ayuntamiento en el que se realiza la actividad de comercio o adiestramiento, una vez verificado el cumplimiento de, al menos, los siguientes requisitos:

a) Ser mayor de edad y no estar incapacitado para proporcionar los cuidados necesarios al animal.

b) No haber sido condenado por delitos de homicidio, lesiones, torturas, contra la libertad o contra la integridad moral, la libertad sexual y la salud pública, de asociación con banda armada o de narcotráfico, así como ausencia de sanciones por infracciones en materia de tenencia de animales potencialmente peligrosos.

c) Certificado de aptitud psicológica.

d) Acreditación de haber formalizado un seguro de responsabilidad civil por daños a terceros que puedan ser causados por sus animales, por la cuantía que se señale.

2. En cada municipio u órgano competente existirá un Registro de Animales de Riesgo clasificado por especies, en el que necesariamente habrán de constar, al menos los datos personales del tenedor, las características del animal que hagan posible su identificación y el lugar habitual de residencia del mismo, especificando si está destinado a convivir con los seres humanos o si



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

besteren bat.

por el contrario tiene finalidades distintas como la guarda, protección u otra que se indique.

3. Lizentziaren titularrak berak eskatu behar du txakurra Erregistroan (aurreko puntuan aipatua) inskribatzea, eskuduntza duen administrazioak bideko lizentzia eman eta hurrengo hamabost eguneko epearen barruan.

3. Incumbe al titular de la licencia la obligación de solicitar la inscripción en el Registro a que se refiere el número anterior, dentro de los quince días siguientes a la fecha en que haya obtenido la correspondiente licencia de la Administración competente.

4. «Animalia arriskugarrien» kasuan, haien jabe, hazle edo edukitzaileek – aurreko artikuluan jasotako baldintza orokorrez gain eta herri segurtasunari buruzko legerian xedaturikoez gain– ondoko baldintza partikular hauek bete behar dituzte:

4. Los propietarios, criadores o poseedores de «Animales de Riesgo», deberán cumplir, además de las condiciones generales de tenencia de animales recogidas en el artículo anterior y las contenidas en la legislación aplicable en materia de seguridad pública, las condiciones particulares que figuran a continuación:

a) Txakurrak ihes egin ez dezan, segurtasun sistema egokiaz hornitu behar da txakurra dagoen leku edo esparrua, auzokoentzat, kaletik pasatzen direnentzat edo gainerako animalientzat inolako arriskurik ez dagoela bermatzeko.

a) El recinto donde se hallare el animal, deberán proveerlo de adecuados sistemas de seguridad que impidan la huida del mismo, con el fin de garantizar la total ausencia de peligro o riesgo tanto para los vecinos y/o transeúntes como para otros animales.

b) Debekaturik dago luza daitezkeen uhalak erabiltzea animalia lotzeko.

b) Quedarán prohibidas las correas extensibles de sujeción.

c) Bide publikoetan, eraikin kolektiboetako zati komunetan eta, oro har, leku publikoetan, derrigorrezkoa da txakurra muturrekoa jarrita edukitzea edo eramatea.

c) Será obligatorio el uso permanente del bozal en las vías públicas, en la partes comunes de los inmuebles colectivos y en los espacios públicos en general.

d) «Animalia arriskugarritzat» katalogaturik dagoela dioen identifikazio plaka (dagokionean finkatzen den eredua) lepokoan jarrita eta ikusteko moduan nahitaez eraman

d) Deberán llevar permanentemente visible, y prendida del collar, una placa identificativa de su catalogación como «Animal de Riesgo», conforme al modelo que en su momento se fije.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

behar du txakurrak.

e) Ezin dute inola ere parte hartu txakur erakusketa, lehiaketa edo txakurren bestelako antolaketetan.

e) Quedarán excluidos de participar en exposiciones, concursos y otros eventos de la especie canina.

III. TITULUA

TITULO III

ANIMALIAK ABANDONATZEA ETA
ANIMALIAK JASOTZEKO TOKIAK

DEL ABANDONO Y DE LOS
CENTROS DE RECOGIDA

6. artikulua.

Artículo 6.

Abandonatutako animaliatzat joko da jatorriaren eta jabearen identifikaziorik ez daraman eta inolako pertsonen konpainiak ez duen txakurra, eta, identifikaziorik eraman arren, jabeak edo arduradunak galdu egin dela salatu ez duen hura.

Se considerará animal abandonado aquél que no lleve ninguna identificación del origen y del propietario, ni vaya acompañado de persona alguna, así como aquél que, portando su identificación, no haya sido denunciado su extravío por su propietario o persona autorizada.

7. artikulua.

Artículo 7.

Udalaren egitekoa izango da abandonatutako animaliak eta, identifikazioa eraman arren, edukitzailearen laguntzarik gabe noraezean dabiltzanak jasotzea eta zaintzea nagusiak berreskuratu, norbaiti utzi edota hiltzen dituzten arte.

Corresponderá al Ayuntamiento la recogida de los animales abandonados y de aquéllos que, aún portando su identificación, vaguen libremente sin el control de sus poseedores, reteniéndolos hasta que sean recuperados, cedidos o sacrificados.

8. artikulua.

Artículo 8.

1. Horretarako, Udalak toki eta instalazio egokiak izango ditu edo, eduki ezean, aipatu zerbitzua emango duen elkartearekin -animaliak babesteko eta defendatzeko elkarteekin, alegia-, udalen gainera dauden erakundeekin edo Foru-Diputazioko organo eskudunekin

1.A tal fin, el Ayuntamiento dispondrá de instalaciones adecuadas o concertar la prestación de dichos servicios con asociaciones de protección y defensa de los animales, colaboradoras de la Administración, con entidades supramunicipales o con el órgano competente de la



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

hitzarmenak egingo ditu.

Diputación Foral.

2. Identifikaziorik gabeko animalia jasota edukitzeko gutxienezko epea hogeita hamar egunekoa izango da. Epe hori igaro, eta inork erreklamatzeko ez badu, animalia jabe egingo da edo norbaiti eman edo hil egingo da.

2.El plazo de retención de un animal sin identificación será como mínimo de treinta días naturales. Transcurrido dicho plazo sin que fuere reclamado, el animal podrá ser objeto de apropiación, cedido a un tercero o sacrificado.

IV. TITULUA

TITULO IV

ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

INFRACCIONES Y SANCIONES

9. artikulua.

Artículo 9.

Ordenantza honen ondorioetarako, arau edo lege hausteak hiru motatakoak izango dira: Arinak, larriak eta oso larriak.

A los efectos de la presente ordenanza, las infracciones se clasifican en leves, graves y muy graves.

1. Arau hauste arinak:

1.Se consideran infracciones leves:

a) Laguntzako animaliak edukitzea, erroldako identifikaziorik gabe, eraman beharra dutenean.

a)Poseer animales de compañía sin identificación censal, cuando la misma fuere exigible.

b) Animaliak garraiatzea, baina legeak dioena bete gabe.

b)El transporte de animales con incumplimiento de lo establecido en la normativa reguladora de la misma.

c) Animalia behar bezala zaindu ezin den lekuan edukitzea.

c)La tenencia de animales en lugares donde no pueda ejercerse sobre ellos la adecuada atención y vigilancia.

d) Animaliei tratatu iraingarria ematea edo haien izaerari ez dagozkien jokaerak edo jarrerak harraraztea.

d)Someter a los animales a trato vejatorio o a la realización de comportamientos o actitudes impropias de su condición.

e) Espaloi, bide, lorategi eta gainerako zona berdeetan txakurrak egindako gorozkiak ez jasotzea eta poltsetan sartuta zaborrontzian ez botatzea.

e)No recoger las deyecciones de las aceras, calzadas, jardines y demás zonas verdes y no depositarlas en los basureros públicos en sus correspondientes bolsas.

f) Animaliei jana bide publikoan ematea.

f)Alimentar a los animales en la vía pública.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

g) Bestelako edozein arau hauste, baldin eta ez bada larria edo oso larria.

g) El incumplimiento de cualquier obligación, siempre que no hayan sido calificados como graves o muy graves.

2. Arau hauste larriak:

2. Son infracciones graves:

a) Animaliak behar beste ez elikatzea edo higiene eta osasunaren ikuspuntutik egokiak ez diren tokietan edukitzea.

a) El mantenimiento de los animales sin la alimentación necesaria o en instalaciones indebidas desde el punto de vista higiénico-sanitario.

b) Animaliak kontrolik gabe edo legeriaren kontra antzutzea, mozketak egitea edo hiltzea.

b) La esterilización, la práctica de mutilaciones y el sacrificio de animales sin control o en contra de las disposiciones normativas establecidas al respecto.

c) Txertoak edo derrigorrezko tratamenduak ez ematea.

c) La no vacunación o la no realización de tratamientos obligatorios.

d) Animaliak baimenik gabe saltzea.

d) La venta de animales no autorizada.

e) Animaliei tratu txarra ematea edo erasotzea, alferrikako oinazeak, kalteak edo mozketak eginez.

e) Maltratar o agredir a los animales causándoles sufrimientos innecesarios, lesiones o mutilaciones.

f) Animaliei beharrezkoak ez diren oinaze edo kalteak sortaraz diezazkieten sustantziak ematea, zuzenean edo janarien bidez.

f) Suministrar a los animales, directamente o a través de los alimentos, sustancias que puedan causarles sufrimientos o daños innecesarios.

g) Kalterik egin dezaketen animaliak zaintzen eta gordetzen behar hainbateko arretarik ez izatea.

g) No mantener la debida diligencia en la custodia y guarda de animales que puedan causar daños.

h) Animaliek nabariak eta larriak diren gaitzak eta minak izan eta albaitaritzasorospen egokirik ez ematea.

h) No prestar a los animales asistencia veterinaria adecuada ante dolencias o sufrimiento graves y manifiestos.

i) Bidezko administrazio-baimenik ez duten ikuskizunetan animaliei parte harraraztea.

i) Hacer participar a los animales en espectáculos carentes de la correspondiente autorización administrativa.

j) Txakurra, bere ezaugarriak kontuan hartuta, uhal egokiarekin lotuta ez eramatea herriko kale, bide eta espazio publikoetan edo eraikin kolektiboetako espazio komunetan.

j) No llevar atado el perro, con correa adecuada a las características del animal, en las vías y espacios públicos urbanos o en las partes comunes de los inmuebles colectivos.

k) Hiru arau hauste arin, zigor ebazpen irmoarekin, zigor espedientea ireki aurreko bi urte hartuta.

k) La comisión de tres infracciones leves, con imposición de sanción por resolución firme, durante los dos años anteriores al inicio del expediente



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

l) Establezimenduak ez betetzea: Animaliak aldi batean zaintzeko, uzteko edo saltzeko baldintzak, animaliak babesteko, uzteko edo saltzeko 1993ko urriaren 29ko Legeak xedatzen dituenak, edo aipameneko legeak eta bere ondoriozko arauak ezartzen dituzten gainerako betebeharrak eta baldintzak.

sancionador.

l) El incumplimiento por parte de los establecimientos de las condiciones para el mantenimiento temporal de los animales, objeto de la Ley de 29 de octubre de 1993 sobre protección de animales, cesión o venta de los mismos, o de cualquiera de los requisitos y condiciones establecidos en dicha ley o en sus normas de desarrollo.

Arriskuko animalien kasuan, lehen aipatutako arau hausteez gainera, honako hauek ere larritzat joko dira:

Respecto a los animales de riesgo, constituyen infracciones graves además de las señaladas:

a) Animalia askatuta uztea edo animaliak ihes egin ez dezan edo gal ez dadin beharrezko neurriak ez hartzea.

a) Dejar suelto un animal de riesgo o no haber adoptado las medidas necesarias para evitar su escapada o extravío.

b) Animalia identifikatzeko obligazioa ez betetzea.

b) Incumplir la obligación de identificar el animal

c) Erregistroan inskribatzeari muzin egitea.

c) Omitir la inscripción en el Registro.

d) Zakurra toki publikoetan muturrekorik gabe edo kateatik lotuta ez eramatea.

d) Hallarse el perro de riesgo en lugares públicos sin bozal o no sujeto con cadena.

e) Arriskuko animaliak garraiatzea arauak bete gabe.

e) El transporte de animales de riesgo con vulneración de lo dispuesto en la normativa.

f) Eskuduntza duten agintariek edo haien agenteek eskatutako informazioa (arauak betetzeari dagokionez) ez ematea, oztopoak jartzea, informazio zuzena ez ematea edo dokumentazio faltsua ematea.

f) La negativa o resistencia a suministrar datos o facilitar la información requerida por las autoridades competentes o sus agentes, en orden al cumplimiento de funciones establecidas en la normativa, así como el suministro de información inexacta o de documentación falsa.

g) Ordenantza honetako 5.4 artikulua «arriskuko animaliak» edukitzeko ezartzen dituen baldintzak, edozein, ez betetzea.

g) El incumplimiento de cualquiera de las condiciones particulares de tenencia de «animales de riesgo» referidas en el artículo 5.4 de la presente Ordenanza



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

3.Oso arau hauste larriak:

a) Animaliak erasoen bidez edo sustantzia toxikoak emanez hiltzea.

b) Laguntzako edo etxeako animalia abandonatzea.

c) Baimendutako ikuskizunetan parte hartzen duten animaliei anestesiak, drogak edo bestelako gaiak ematea animalien otzantasuna aragotzeko, errendimendu fisiko handiago ateratzeko edo berezkoa ez duen beste edozein jokabide lortzeko.

d) Zakur arraza arriskutsuak haztea edo nahastea.

e) Janari pozoituak bide eta leku publikoetan uztea.

f) Debekatutako ikuskizunetan animaliei parte harraraztea.

g) Hiru arau hauste larri egitea, zigor ebazpen irmoarekin, zigor espedientea ireki aurreko bi urteren barruan.

h) Animaliekin zine edo telebistarako irudi krudelak, tratu txarrekoak edo animaliarri sufriarazten diotenak filmatzea, baldin eta haiek benetakoak badira eta ez itxura soilekoak.

Arriskuko animalien kasuan, aurrekoaz gainera, oso arau hauste larriak dira beste hauek ere:

a) Arriskuko animalia, edozein motatakoa, abandonatuta uztea, jabearen edo jatorriaren identifikazioa eduki ala ez eduki. Honetarako, inorekin ez dabilen animalia abandonatutzat joko da.

b) Txakur edo arriskuko animalia lizentziarik gabe edukitzea.

c) Txakurra edo arriskuko animalia

3.Son infracciones muy graves:

a)Causar la muerte a los animales mediante actos de agresión o suministrar de sustancia tóxicas.

b)El abandono de un animal doméstico o de compañía.

c)Suministrar a los animales que intervengan en espectáculos permitidos, anestesias, drogas u otros productos con el fin de conseguir su docilidad, mayor rendimiento físico o cualquier otro fin contrario a su comportamiento natural.

d)La cría o cruce de razas caninas peligrosas.

e)Depositar alimentos empozoñados en vías y espacios públicos.

f)Hacer participar a los animales en espectáculos prohibidos.

g)La comisión de tres infracciones graves, con imposición de sanción por resolución firme, durante los dos años anteriores al inicio del expediente sancionador.

h)La filmación de escenas con animales para cine o televisión que conlleven crueldad, maltrato o sufrimiento no simulado.

Respecto a los animales de riesgo, constituyen infracciones muy graves, además de las señaladas:

a)Abandonar un animal de riesgo, de cualquier especie y cualquier perro, entendiéndose por animal abandonado, tanto aquél que vaya preceptivamente identificado, como los que no lleven ninguna identificación sobre su origen o propietario, siempre que no vayan acompañados de persona alguna.

b)Tener perros o animales de riesgo sin licencia.

c)Vender o transmitir por cualquier



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

lizentziarik ez daukan bati saltzea edo transmititzea.

d) Animaliak heztea beren agresibitatea aktibatzeke edo debekatuta dauden eginkizunetarako.

e) Arriskuko animaliak hezten jardutea, gaitasun agiririk gabe.

f) Animalien agresibitatea erakusteko arriskuko animaliekin lehiaketak, ariketak, erakusketak edo ikuskizunak antolatzea, gauzatzea edo haietan parte hartzea.

título un perro o animal de riesgo a quién carezca de licencia.

d)Adiestrar animales para activar su agresividad o para finalidades prohibidas.

e)Adiestrar animales de riesgo por quien carezca del certificado de capacitación.

f)La organización o celebración de concursos, ejercicios, exhibiciones o espectáculos de animales de riesgo, o su participación en ellos, destinados a demostrar la agresividad de los animales.

10. artikulua. Zigorrak.

Artículo 10. Sanciones.

Ordenantza honetako arauak hausten dituenari 30,05 € eta 15.025,30 € bitarteko zigorra ezarriko zaio, honako eskala honen arabera:

1.Las infracciones de la presente ordenanza serán sancionadas con multas de 30,05 € a 15.025,30 €, de acuerdo con la siguiente escala:

a) Arau hauste arinak: 30,05 eta 300,51 € bitartean.

a)Las infracciones leves con multas de 30,05 € a 300,51 €.

b) Larriak: 300,52 eta 1.502,53 € bitartean.

b)Las infracciones graves con multa de 300,52 € a 1.502,53 €.

c) Oso larriak: 1.502,54 eta 15.025,30 € bitartean.

c)Las infracciones muy graves con multa de 1.502,54 € a 15.025,30 €.

2. Arriskuko animalien kasuan, jarriko diren zigorren kopuruak beste hauek izango dira:

2.Si las infracciones se refieren a animales de riesgo, se sancionarán con las siguientes multas:

a) Arau hauste arinak: 150,05 eta 300,51 € bitartean.

a)Las Infracciones leves con multas de 150,25 € a 300,51 €.

b) Larriak: 300,52 eta 2.404,05 € bitartean.

b)Las infracciones graves con multas de 300,52 € a 2.404,05 €.

c) Oso larriak: 2.404,06 eta 15.025 € bitartean.

c)Las infracciones muy graves de 2.404,06 € a 15.025,30 €.

3. Ordenantza honetako zigorren kopuruak, urtero eta automatikoki, kontsumoko prezioen indizearen ehunekoa aplikatuta eguneratuko dira.

3.Las cuantías de las sanciones establecidas en la presente ordenanza serán anual y automáticamente actualizadas con arreglo al índice de precios al consumo, el cual se aplicará sobre la



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

cuantía de la sanción del año anterior.

11. artikulua

1.Zigor ebazpenak arau-haustearen xede diren animaliak konfiskatzea aginduko du, animaliaaren segurtasuna bermatzeko beharrezkoa denean.

Konfiskatutako animaliak berariaz animaliak gordetzeko instalazioetan zainduko dira eta ahal bada beste jabe batzuei emango zaizkie edota, besterik ezean, 1993ko urriaren 29ko Legeko 9. artikuluan xedatutakoaren arabera hilko dira.

2.Ordenantzako 9.2. eta 3. artikuluetan xedatzen diren arau-hausteak egiteak instalazioak, lokalak edo establezimenduak aldi baterako ixtea ekar dezake. Arau-haustea larria denean ixteko agindua gehienez ere bi urterako izango da, eta lau urterako, arau-haustea oso larria denean, eta gainera beste animalia batzuk edukitzeko debekua, gehienez ere lau urteko epean.

3.Oso larritzat tipifikatutako eta santzionatutako arau-haustean berriro eroriz gero, hiru urtetik beherako aldi, behin betiko galduko da administrazio baimena, animalien babesari buruzko 1993ko urriaren 29ko Legeko 19. artikuluan xedatutakoarekin bat.

12. artikulua.

1. Isunen zenbatekoak erabakitze eta ordenantza honetako 10. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusi diren santzioen iraupena zehazteko, honako zirkunstantziak izango dira

Artículo 11.

1.La resolución sancionadora ordenará el decomiso de los animales objeto de la infracción cuando fuere necesario para garantizar la integridad física del animal.

Los animales decomisados se custodiarán en las instalaciones habilitadas al efecto y serán preferentemente cedidos a terceros, y en última instancia sacrificados de conformidad con lo establecido en el artículo 9 de la Ley de 29 de octubre de 1993.

2.La comisión de infracciones previstas en el artículo 9.2 y 3 de la Ordenanza podrá comportar la clausura temporal de las instalaciones, locales o establecimientos respectivos, hasta un máximo de dos años para las graves y un máximo de cuatro años para las muy graves, así como la prohibición de adquirir otros animales por un periodo máximo de cuatro años.

3.La reincidencia, en plazo inferior a tres años, en faltas tipificadas y sancionadas como muy graves comportará la pérdida definitiva de la autorización administrativa señalada en el artículo 19 de la Ley 29 de octubre de 1993 de protección de animales.

Artículo 12.

1.Para la graduación de las cuantías de las multas y la determinación del tiempo de duración de las sanciones previstas en el apartado 2 del artículo 10 de esta ordenanza, se tendrán en



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

kontuan:

a) Egindako arau-haustek gizartean eta osasunean izan duen eragina eta sortutako kaltea.

b) Egindako arau-hausteaz legez kontrako irabazi asmoa eta arau-hauste horrekin lortutako etekina.

c) Egindako arau-haustean berriro erortzea. Arau-haustean berriro erori dela esango da lehendik ere, zigor espedientea hasi aurreko bost urteen barruan, ordenantza honetan aurreikusi diren arau-hausteren bat dela eta, zigorren bat jaso izan bada administrazio bideko erabaki irmoaren bidez.

d) Arau-haustea sailkatzerakoan, onerako zein txarrerako, eragina izan dezakeen beste edozein arrazoi. Sailkapen horretan eragin berezia izango du animaliak bortxakeriaz tratatzeak haurren edo elbarritu psikikoen aurrean egitea.

cuenta las siguientes circunstancias:

a) La trascendencia social o sanitaria y el perjuicio causado por la infracción cometida.

b) El ánimo de lucro ilícito y la cuantía del beneficio obtenido en la comisión de la infracción.

c) La reiteración en la comisión de infracciones. Existe reiteración cuando se hubiere impuesto sanción mediante resolución firme en vía pública administrativa por comisión de una de las infracciones previstas en la presente Ordenanza en el plazo de cinco años anteriores al inicio del expediente sancionador.

d) Cualquier otra que pueda incidir en el grado de reprochabilidad de la infracción, en un sentido atenuante o agravante. A tal efecto tendrá especial significación la violencia ejercida contra animales en presencia de niños o discapacitados psíquicos.

2. Juridiktasun eta erruduntasunaren bazterketari buruzko arau penalak analogikoki eta ahal den neurrian aplikatuko dira; hala ere horrek ez du esan nahi alor horretako beste zirkunstantzia batzuk ere kontuan izango ez direnik aipatu eraginetarako.

2. Se aplicarán analógicamente, en la medida de lo posible, las reglas penales sobre exclusión de la antijuridicidad y de la culpabilidad, sin perjuicio de atender, a idénticos efectos, a otras circunstancias relevantes en dicho sector.

3. Gertakizun bat araudi desberdinetan tipifikatutako bi edo arau-hauste gehiagorako kausa bada, horiei dagozkien zigorretan handiena ezarriko da. Holako espedienteak bideratzea eta ebaztea zigorrak emateko ahalordea duen organoaren erantzukizuna da.

3. En el supuesto de que unos mismos hechos sean constitutivos de dos o más infracciones administrativas tipificadas en distintas normas, se impondrá la sanción de mayor cuantía, siendo competente para instruir y resolver el expediente el órgano en quien resida la potestad sancionadora.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

13. artikulua.

Artículo 13.

1. Lege honetan aurreikusi diren zigorrak jartzeko ahalmena betetzeko, administrazio espedientea ireki eta horren izapideak egin behar dira, betiere Administrazioaren zigor jardunbidea erregulatzen duten arauekin bat.

1. El ejercicio de la potestad sancionadora prevista en la presente ley requerirá la incoación e instrucción del correspondiente expediente administrativo, de conformidad a las normas que regulan el procedimiento sancionador de la Administración.

2. Udalei dagokie zigor espedienteak irekitzea eta, egoki denean, udalek bideratuko dituzte espediente horiek eskumena duen agintaritzara, horrek ebatzi ditzan.

2. Los Ayuntamientos instruirán los expedientes sancionadores y los elevarán a la autoridad administrativa competente para su resolución en los casos que corresponda.

14. artikulua.

Artículo 14.

Arau-hausteei dagozkien zigorrak ezartzea honako organoei dagokie:

1. La imposición de las sanciones previstas para las infracciones corresponderá:

a) Alkateei, arau-hauste arinetan.
b) Udalaren osoko bilkurari, arau-hauste larrietan.

a) A los alcaldes, en el caso de infracciones leves.

c) Foru Aldundiaren eskudun organoari, arau-haustea oso larria denean.

b) Al pleno del Ayuntamiento, en el caso de las infracciones graves.

c) Al órgano foral competente, en el caso de infracciones muy graves.

2. Udalek foru organoek ebatzi behar dituzten zigor espedienteak irekitzen dituztenean, ezarritako isunen zenbatekoak espedientea ireki duen udalaren gordailuan sartuko dira.

2. Cuando los Ayuntamientos instruyan expedientes sancionadores que han de ser resueltos por los órganos forales, el importe de las sanciones impuestas se ingresará en las arcas de los Ayuntamientos instructores.

15. artikulua.

Artículo 15.

1. Ordenantza honetan aurreikusitako arau-haustek lau hilabetera preskribituko dira, arinak direnean; urte batera, arau-hauste larriak direnean, eta bi urtera oso larriak direnean.

1. Las infracciones previstas en la presente ordenanza prescribirán a los cuatro meses en el caso de las leves, al año en el caso de las graves y a los dos años en el caso de las muy graves.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2. Zigorrak bost urtera preskribituko dira, isunaren zenbatekoa 3.005,06 €-koa edo handiagoa bada; eta urte batera, zenbatekoa hortik beherakoa bada.

2. Las sanciones prescribirán a los cinco años cuando su cuantía sea igual o superior a 3.005,06 €, y al año cuando sea inferior a esta cantidad.

Xedapen idargabetzailea.

Disposición derogatoria.

Ordenantza hau indarrean jartzen denean, indargabetuta eta ondoriorik gabe geldituko dira bere mailako edo gutxiagoko xedapen, araudi eta ordenantzak, baldin eta haren aurkakoak badira.

Se derogan, dejándoles sin valor ni efecto alguno, a partir de la entrada en vigor de la presente Ordenanza, cuantas disposiciones, reglamentos u ordenanzas de igual o inferior rango estén establecidas y se opongán a la misma.

Azken xedapena.

Disposición final.

Ordenantza hau, behin betetiko onespena jaso ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik agertu eta handik hamabost egunera indarrean jarriko da.

La presente Ordenanza entrará en vigor una vez aprobada definitivamente y transcurridos quince días a partir de su publicación íntegra en el Boletín Oficial de Gipuzkoa